



## EREÑOTZU SAN ANTONIO JAIK

# Harriak bertsoan eta aizkorak dantzan, San Antonio egunean

Gaur hasiko dira San Antonio jaiak, Ereñotzun. Eguerdian botako du txupinazoa, Katiluzar Guraso Elkarteak, eta gauera arte luzatuko da festa: herri kirolak, bertsolariak, dantza emanaldia, afaria...

MENDI lasterketarekin eta mus txapelketarekin giroa berotzen hasita, gaur lehertuko dira San Antonio jaiak, Ereñotzun. Eguerdiko 12:00etan botako du txupinazoa, Auzo Udaleko bal-koitik, Katiluzar Guraso Elkarteak; eta suziariak zeruan eztanda egin bezala, Ereñotzuko plazan elkartuko dira auzotarrak, herri kirol saioaz gozatzeko.

Izan ere, ez da nolanhiko erakustaldia izango, momentuko herri kirolari onenetako laurekin: Aimar Irigoien eta Izeta IV harriak jasotzen, eta Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugerza aizkorarekin.

Ez dira nolanhikoak izango, ezta ere, Unai Agirreren eta Agin Labururen bertso saioa, Ereñotzuko eta Ttarla taldeko dantzariak arratsaldean eskainiko duten emanaldia, eta frontoian jokatu diren bi pelota partiduak. Eta borobiltzeko, elkarrekin afalduko dute frontoian: norberak eramango du jaketokoa etxetik, baina Jai Batzordeak jarriko ditu edaria, aulkiak eta mahaiak.

### Bihar atseden hartu, eta ostiraletik igandera festa

Jaiak eten bat egingo dute bihar, baina ostiralean bueltatuko dira, Txirrita eskolaren kurtso bukaerako jaialdiarekin; eta ordutik, igande iluntzera arte luzatuko da jai giroa. Besteak beste, harri tiran ariko dira ostiralean, herri afariaren aurretik; herri kirol desafioak erakarriko du jendea, larunbatean; eta bertso jaialdi haundi batekin bukatuko dira jaiak. ||



Ereñotzun izango da, gaurkoan ere, Almar Irigoien harrijasotzalea.

## EREÑOTZUKO SAN ANTONIO JAIK

### GAUR, asteazkena

**12:00**, Katiluzar Guraso Elkarteak hasiera emango die jaiak, suziariak jaurtik. **Jarraian**, Herri kirolak, Ereñotzuko plazan: Aimar Irigoien eta Hodei Iruretagoiena (Izeta IV) harrijasotzaleak, eta Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugerza aizkolariak.

**Ondoren**, Bertsolarien saioa: Unai Agirre eta Agin Laburu.

**17:00**, Ereñotzuko eta Ttarla taldeko dantzarien emanaldia.

**18:00**, Pelota partiduak, frontoian: mutilak eskuz (Agirre-Insauti/G. Arizmendi-E. Arizmendi) eta neskek palaz.

**20:00**, Afaria frontoian, norberak etxetik eramandakoarekin. Edaria, aulkiak eta mahaiak jarriko ditu Jai Batzordeak.

### ETZI, ostirala

**15:00**, Txirrita ikastetxeko ikasleen ikasturte amaierako jaialdia.

**16:30**, Haur jaialdia, Katiluzar Guraso

Elkarteak antolatuta: jolasak, merienda, *HiSelfie* gaztetxoentzat...

**19:00**, Emarri taldearen eta Ereñotzuko gazteen harri tira erakustaldia.

**20:30**, Kistiñe Solano eta Idoia Arriola trikitilarien aurreneko saioa.

**21:00**, Herri afaria frontoian. Txartelak salgai Irrintzi tabernan.

**Jarraian**, Kistiñe Solano eta Idoia Arriola trikitilarien bigarren saioa.

**00:00**, Denok plazara! Denak aurrekua dantzatzerako!

**00:30**, Beñat Igerabide bakarariaren kontzertua, txosnan.

**Ondoren**, DJ DZ.

### EKAINAK 16, larunbata

**11:00-13:00**, Puzgarriak, frontoian.

**Goizean eta iluntzean**, Hernaniko Gazte Olinpiadak.

**17:00-19:00**, Bola eta toka. Hernaniko Bola Txapelketaren aurreneko tiraldia.

**18:00**, Desafioa, aizkoran eta korrika,

futbol zelaian: Roxario Pikabea eta Arria VI, Arria Vren kontra.

**20:30-21:30 eta 00:30etatik aurrera**, Laiotz taldearekin parranda.

### EKAINAK 17, igandea

**08:30**, Hernaniko bistulariekin diana, baillaran barrena.

**11:30**, Pelota partiduak, frontoian: emakumezkoak eskuz (Espinar-Mendizabal/Arrieta-Ruiz de Laramendi) eta gizonezkoak eskuz (Labaka-Aizpitarte/Arrieta-Apeztebea).

**12:00**, Sagardo dastaketa plazan, Ur-Mia elkarteak antolatuta. Sagardotegiak: Elutxeta, Iparragirre, Elorabi, Otsua-Enea, Olaizola, Goiko-Lastola eta Larre-Gain.

**18:30**, Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Eli Pagola, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi eta Aimar Karrika.

**Ondoren**, Errifaren zozketa, eta jaiak bukaera emateko suziariak.

## BERDINTASUNA

### Tailerra gaur, eta dokumentala bihar

Berdintasun Sailak antolatuta, bi zita izango dira, gaur eta bihar, Biterin. Tailer irekia egingo dute gaur, arratsaldeko 18:00etan, sexu-orientazio eta genero-identitateen ondoriozko gorroto-delituaren inguruan. Eta bihar, dokumentala jarriko dute: *Fusilak edo pintadak, Saharar herriaren indarkeriarik gabeko borroka*. 19:00etan izango da, gaztelaniaz, baina euskerazko azpitoluekin. ||

## DANTZA

### Dantza garaikideko ikasleak, bihar

Kurtso bukaerako emanaldia eskainiko dute bihar, Biterin, dantza garaikideko ikasleek. 20:00etan izango da. ||

## ALTSASUKO AUZIA

### Iruñara joateko, autobusak

Altsasuko gazteen atxiloketa salatzeko, manifestazioa deitu dute larunbat honetan, Iruñan. Eta bertara joateko, autobusak jarri dituzte: Sortuk antolatuta, 15:15etan aterako dira batzuk Atsegindegitik, eta apuntatzeko zerrenda Garinen dago; Hernaniko Gazte Olinpiadek, berriz, 15:00etan Ereñotzutik jarriko dute autobusa, eta zabalik dago izenematea. ||

## ERRETIROA

### Ana Munduateri agurra, gaur

Ana Munduateri Iruretagoienak erretiroa hartuko duela eta, agurtzeko afaria antolatu dute gaur. Bertan egon nahi duenak, Mari Fe arrandegian eman behar du izena. ||

## ESKUBALOA

### Ate irekien saioak, gaur eta bihar

Datorren ikasturteari begira, eskubaloia probatzeko lau saio antolatu dituzte kiroldegian, 2005-2006 urteetan jaiotako haurrentzat; eta gaur eta bihar izango dira azkeneko biak, 17:00etatik 18:30etara. ||

**IRUBIDE JATETXEA**

San Antonio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 667 208 702

musika eskola  
**DOINU-ZALE**

KARABEL AUZOA, 4 - beheko estreina  
AURREMATRIKULAZIOA ZABALIK  
ekainaren 22 arte

Ondo ibili! Ereñotzuko festetan!

943 33 12 33 - 637 85 79 62

**IMANOL KAMIO**  
musika eskola

**DOINU ZALE**

**irrintzi**  
TABERNA

Pinbeak, raziak, plater konbinatuak, bokazak, pizzak, harburgesak, tartak erikaguz (Etxera eramateko ere bai) Suakidea 10:00etatik 22:00ak arte.

**ONDO PASA SAN ANTONIO JALETAN!**

Ereñotzuko Biala, 3 - 2003 HERNANI  
Tel. 843 630 821 Mob. 656 374 258  
[www.jazteok.com/irrintzi](http://www.jazteok.com/irrintzi) - [www.jazteok.com/irrintzi](http://www.jazteok.com/irrintzi)

Kronika egunero euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko,  
**Kronikalari gehiago behar dira**

**ABANTAILAK**

1. Errenta aitortzearen dedukzioa.
2. Deskontuak: aurrez zehaztutako ekitaldietan.
3. Zozketak: aurrerantzean Kronikalarien artean.

**EGIN KRONIKALARI**

943 33 08 99  
[kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)

Urtean **25€**

☎ | TAXIAK: 943 550093 | UDALTZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941 / Gaez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941

**EGURALDIA**  
**GAUR** Euria egingo du, ia etengabe, bereziki goizean. Gero atertzera egingo du pixka bat, eta baliteke ostarte batzuk zabaltea ere. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, baina ahulago. **Min.15° / Max.18°**  
**BIHAR** Goizean lainotuta egongo da oraindik, eta euria ere egin dezake. Garbituz joango da gero, eta ostarte haundiak izango dira egunaren bukaeran. Haizea, iparraldetik. **Min.14° / Max.20°**

## IPAR MARTXA ESPAINIAKO TXAPELKETA

# 7 hernaniar podiumean, taldekakoan

Nesketan bigarren eta mutiletan hirugarren izan ziren Valladoliden, Club Vasco de Camping taldearekin, Espainiako Taldekako Txapelketan.

JOAN den igandean jokatu zen, Valladoliden, ipar martxako Espainiako Taldekako Txapelketa; eta bertan izan ziren hernaniarrak ere. Guztira, zazpi herritar aritu ziren, Donostiako Club Vasco de Camping taldearekin, nesketan zein mutiletan; eta guztiek lortu zuten, podiumera igotzea!

18 talderen artean, bigarren sailkatu ziren nesketan, Espainiako txapeldunorde; eta hirugarren mutiletan.

Proba bikaina egin zuten hernaniarrek, lokaztuta eta euripean osatu zuten ibilbide gogorrean. Adina ere ez zuten izan oztopo: bi taldeen batzbesteko adinak ziren, txapelketa guztiko altuenak.

Orain, Gipuzkoako Txapelketa begira daude. Aurrenekoz jokatu da, uztailaren 7an, Donostiako Miramongo basoan. Bertan izango dira, estatuko espezialista onenak ere. ||



Bigarren postua lortu zuten nesketan, hernaniarrek.



Podiumeko hirugarren tokira igo ziren, mutiletan.

## LITERATURA IÑAKI SAINZ DE MURIETA

# Kanideren beste abentura bat, kalean

'Kanideren abenturak' bildumaren laugarren alea argitaratu du Iñaki Sainz de Murietak: 'La tribu crece'. Donostian aurkeztuko du, etzi.

ALE berri bat gehitu dio Iñaki Sainz de Murieta idazle hernaniarrak, laugarrena, *Kanideren abenturak* bildumari: *La tribu crece*. Dagoeneko kalean da, eta Verbum argitaletxearen web orrian, Elkarren eta La Casa del Libron dago eskuragarri. Oraingoan, bere ama-

ren familiarekin elkartuko da Kanide, eta aitona-amonak ezagutuko ditu. Gainera, emakume mediku boteretsu batek erakarriko du bere arreta, eta haren ikasle bilakatuko da.

Haur eta gazteentzako ipuin bilduma da, eta autorearen helburua da, «aurrehistoria modu

erraz eta atsegin batean azaltzea, Kanideren bitartez».

**Aurkezpena etzi, Donostian** Bilduma osoaren aurkezpena egingo du Sainz de Murietak, ostiralean, 19:00etan Donostiako FNACen. Eta hilaren 30ean, Errenteriako Noski! dendan. ||

## JASOTA BEZALA

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

### Presta zaitezte zur eta lur geratzeko...

Duela gutxi, Zazpikan Euskaldunei eta Kanadako indigenei buruzko erreportaia ikusiko zenuten beharbada, lauburu marraztua daukaten kanoak, euskaldunek eramandako aizkorak, hitzak, trukea. Baina ikerketa proiektu hau duela denbora askotik dago martxan, eta uste baino handiagoa da.

Lan ona egiten ari dira

Cape Bretoneko unibertsitatea, Unamaki College eta euskal Jauzarrea (euskal kulturaren ikerketa eta zabalkunderako fondoa).

Euren historia ikertzean, gurea ere ikertzen ari dira, lan paregabea eginez. Irailean, Sydneyen, Kanadan, *Atlantiar Knekk Tepaw* kongresua egingo dute, Cape Bretoneko unibertsitateak eta Jauzarreak antolatuta, eta ostegun honetan

proiektu hau aurrera eramaten ari diren pertsonak ezagutzeko aukera paregabea izango dugu. Stephen Augustine Unamaki Collegeko ikerlaria, indiar algonkinoa eta Jauzarreako Xabi Otero izango dira hizlariak.

Presta zaitezte zur eta lur geratzeko...

Ostegun honetan, ekainak 14, 17:00etan Orona Ideon.

Haritz Kalbete Etxeberria

## KIROL SARIAK 2018-2019

### Kirol Sarien banaketa, Azeri Bilan

Larunbat honetan egingo da, Azeri Bila herri lasterketa, arratsaldeko 18:30etan hasita; izenemateak zabalik daude, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean. Eta, lasterketaren sari banaketaren ondoren, banatuko dituzte Hernaniko Kirol Sariak ere, Urbietan kalean bertan. ||

## SAN JOAN JAIAK

### Jaien hasiera eta bukaera, balkoitik

Urtero bezala, aukera emango die Udalak, herritar batzuei, San Joan jaien hasiera eta bukaera udaletxeko balkoitik ikusteko: lau lagunek hasiera, eta beste lauk bukaera; baina bakoitzak beste lagun bat gonbidatu ahal izango du. Izena emateko epea zabalik dago, udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan (08:00etatik 19:00etara), eskaera orria beteta. Apuntatzen diren guztien artean, ekainaren 19an egingo dute zozketa, udaletxeko pleno aretoan, 12:00etan. ||

## SUTU HERNANI

### 'Playback' lehiaketan, izenematea

San Joan jaien barruan, ekainaren 24an, *playback* lehiaketa antolatu du Sutu Hernanik, 23:59etan tablatuan. Eta horretarako, zabalik dago izenematea, ekainaren 20ra arte: 663 473 045 zenbakira idatzi, taldea eta kantaren izenarekin. Gaia: 90eko hamarkada. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**I. URTEURRENA**  
**Anita Albizu Aranburu**  
 (Luis Otxotorenaren alarguna)  
 2017ko ekainaren 14an hil zen, 91 urterekin  
 -Goian Bego-

Anitaren senitartekoei urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.

**Urteurreneko meza, BIHAR, OSTEAGUNA, arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2018ko ekainaren 13an**

*Beti egongo zara gure artean*  
 Etxekoak

**V. URTEURRENA**  
**Marcelino Tolosa Goikoetxea**  
 1925-6-17 • 2013-6-13

## IRAGARKI MERKEAK

Langile bat behar da, soldatzaile-muntatzailea, esperientziarekin. Deitu: 943 690 643  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA